



Kaixo:

“Tolosaldea Sahararekin” elkarteko kideak gara. Dakizuen moduan gure helburua Saharar Herriarekiko elkartasuna da.

Saharar herria azken 45 urtetan zehar zatiturik aurkitzen da: batzuk saharar errefuxiatu kanpamentuetan (hemen biziraun izateko kanpo-laguntza behar-beharrezkoa da), beste batzuk lurralde okupatuan (Marokoko erregimenak okupaturik duen Mendebaldeko Saharan bizirautean duten sahararrak elkartasun politikoa behar dute) eta beste batzuk lurralde askatuetan (Frente POLISARIOaren eskuetan dagoen lur zatian). Ezin ahaztu ditzakegu diasporan bizi diren sahararrak ere.

Gure elkarte, 2000. urtean sortu zen saharar herriari laguntzeko gogoz eta dakizuen bezala, urte guzti hauetan proiektu ugari jarri ditugu martxan. Urte guztia igarotzen dugu, jarduera ezberdinak egiten, eta urte garai honetan, saharar errefuxiatu kanpamentuetara bideratzen dugun produktu mota ezberdinen bilketa da gure jarduera. Gure urteroko helburua ahalik eta produktu gehiena jasotzea da, Tolosaldeako biztanle bakoitzak kilo bat emango balu aukera ikaragarria izango litzatekeelako. Horretarako ikastetxeen, kultur-etxeetan, udaletxeetan.... bilketa txokoak jartzeko laguntza behar izaten dugu, baita bilketaren inguruan informazioa zabaltzeko ere.

Baina urte honetan Covid-19a dela eta Espainia eta Argelia arteko mugak itxita daude eta oinarrikoa eta beharrezkoa den elikadura eta material hauek fisikoki bertara eramatea oso zaila suertatzen ari da. Baina krisia eta beharra handia da eta hori dela eta kanpaña berezi bat jarri nahi izan dugu martxan. Urtero biltzen ditugun material guzti horiek Argelian bertan erosteko DIRU BILKETA egingo dugu.

Normalean biltzen ditugun produktuek Argelian duten prezioa:

- Arroza 0,84€
- Azukrea 0,75 €
- Pasta 0,88€
- Atuna eta sardinak oliotan (x3 lata) 3,63€
- Lentejak (1,36€), garbantzuak (1,89€), babarrunak (1,69€)
- Olioia 1,08€
- Konpresak 0,70€
- Eskolako materiala (arkatza, goma, zorroztekoa, boligrafoa eta koaderno) 0,93€

Dirua bi eratara jasoko dugu:

- 1- Kontu korrante honetan transferentzia egiten: Kutxabank 2095 5081 93 1062503346
- 2- Bizum bidez. “Eman” sakatu eta bilatu Tolosaldea Sahararekin elkarte

Jasotzen den diruaren %100a aurretik jarritako produktuak erosteko erabiliko da.

Saharar errefuxiatu kanpamentuetan bizirautean duten pertsonen egoera larria da eta gu guztion laguntza behar beharrezkoa dute.

Aldez aurretik mila mila esker.

Tolosaldea Sahararekin elkarte